

ERREPORTAJEA DANOBATEN 50. URTEURRENA · GEHIGARRIA TXIKIBARREN  
KIROLA HIRU HANDIAK MENDI PROBAKO ELGOIBARTARREN SAILKAPENA

# BARREn

ASTEKARIA

ELGOIBARKO ASTEKARIA · 2004ko ekainaren 11a/XII. urtea/192. zkia

*Ibarluzeatarrentzat  
boloek sekreturik ez*





udan freskura behar duzu... euskara beti!  
en verano necesitarás aire fresco... ¡el euskera lo necesitarás siempre!

**UDAL**  
EUSKALTEGIAK



## 2004ko UDAKO EUSKARA IKASTAROAK

### Eskaintza:

EGA azterketa prestatzeko ikastaro berezia  
Euskalduntze maila guztiak.

### Erritmoak:

Egunean 5 ordu, goizez.

**16 urtetik gorakoentzat.**

### Ikastaroaren iraupena:

Ekainaren 28tik uztailaren 23ra arte.

### Matrikulaldia

Ekainaren 1etik 24ra arte.

[www.udaleuskaltegiak.net](http://www.udaleuskaltegiak.net)

**DEBABA Udal Euskaltegien Mankomunitatea**

Nafarroa Enparantza 2 • 20870 ELGOIBAR • Tel./Faxa: 943 74 27 31 • [elgoi.euskal@udal.gipuzkoa.net](mailto:elgoi.euskal@udal.gipuzkoa.net)

# ZEZEN-BIDE

## AUTO ESKOLA



Kotxerako B agiri teorikoa **18 urte bete baino lehen** eskura dezakezu!

**Ordenagailu bidez** teoria ikasteko gela berria!



### ORDUTEGIA

10:00etatik-12:30era

15:00etatik-20:30era

**San Frantzisko, 43 - 1. solairua**

Tel. 943 742 720  
20870 ELGOIBAR

**Ego Gain, 4 behea**

(San Andres pasealekutik)  
Tel. 943 203 445 - 20600 EIBAR



**Albiste txarrak euskararentzat**

Europar hauteskundeak eta euskararen ofizialtasunaren kontua guztion ahotan dabilen une berean jakin dut Asteon astekariaren 11. alerik ez dela argitaratuko. Dirurik ez omen dago...ez pribaturik (publizitatea) ez eta publikorik ere! Nahikoa eskasa bada jada euskarazko komunikabideen eskaintza, proiektu berri bat era honetan erortzen uzteko!

Euskarak XXI. mendean aurrera egingo badu, bakoitzak bere aldetik zerbait emango duelako izango da. Gaztelera eta Frantsesarekin aurrez aurre lehiatzeko gaitasun txikia ikusten diot nik gure ama hizkuntzari... haren inguruan, komunitate eta bizimolde euskalduna osatzen dugunok gure partetik ahal dugun guztia jartzen ez badugu: eta horrelako proiektuak aurrera ateratzeko, dirua behar da!

Partidu politikoek ostikoka, legez kanpo utzitako zerrendei benetako babesik eman gabe jarraitzen duten bitartean, Eusko Jaurlaritzako aurrekontuak luzatu egin dira, eta ondorioz, proiektu berriztatzaileak, euskarazko hezkuntzarako plangintza berriak edo Osakidetza euskalduntzeko planek ez dute aurrera egingo... eta beti bezala... konponbideak urrun eta Asteon bezalako proiektu asko bidean geldituko dira.

Benetan tamalgarria gertatutakoa... batez ere, abiadura handiko astakeria horretan milaka miloi euro xahutzeko prest daudela ikusten dugun bitartean! Europara abiadura bizian gerturatu nahi gaituzte bai... bidean utzi dezakegunari erreparatu gabe.

Lorea Perez de Albeniz



**H.Z. (eta bi)**

Argitu dira zalantzak eta Espainiako epaileek PPK eta PSOEek esandakoari men eginez legez kanpo utzi dute Herritarren Zerrenda. Eskandalagarriak dira epaileek erabili dituzten argudioak, konbentzimendu moral baten pean eta inolako oinarri juridikorik gabe milaka eta milaka euskaldunen eskubideak lurperatuak gelditu baitira. Denbora gutxi iraua dio PSOERI talante berriaren maskarak. Beste maila batean maniobratzeko tartea badauka ere Euskal Herriaren aurrean PSOEek estatu estrategiari jarraitzen dio, PPrekin adostua duena hain zuzen ere. Ondotxo daki PSOEek HZK Euskal Herriko askatasuna eta eskubideen aldeko jarrera irmoa duela eta hori da suntsitu nahi duena hain zuzen ere, horretarako ilegalizazioa erabiliz. Beraz, ez da aukera politiko bat joko kanpo utzi nahi dutena soilik, herri baten nahia baizik. Bere geroaren jabe izan nahi duena, autodeterminazio eskubidearen subjektua izan nahi duena.

Beste alderdi politikoak ilegalizazioaren aurka ahoz azaldu badira ere, ez dira gai izan ilegalizazioaren aurkako dinamika serio bat martxan jartzeko. PNVk ez du HZrekin bildu nahi izan ere. Aitzitik Imazen ahotik entzun dugu HZk ez dakit zein sabotaje gaitzetsi beharko lukeela. Bazterrak nahasteko ahaleginak. GALa gaitzesteko eskatuko al dio PSOERI?

Egoera honetan igandean HZri botua emateko motiboak argiak dira. Ea igande gauean Zapatero, Aznar, Raxoi eta enparauei tripako mina egiten zaien emaitzak ikusten dituztenean.

Pello Mendizabal

asteko notiziario

Kexak.....5

motZ MotZ.....8

gehigarria .....13

kiROLak.....20

## ESKER MILA

Nagusixen tanborradatik ospakizunian lagundu diguten guztixak eskertu nahi ditugu: Pilar Ikastetxia, Loli Rodriguez, Udaletxia,

Udaltzaingua, Udal Musika Banda, Goiko Errota Soziedadia, Jai Alai, Gabi, Ilunpe eta King-Kon tabernak eta Sigma Jatetxia. Mila esker guztioi.

A.A. - N.A.N. 15.397.154-B

## ELGOIBARTAR BATEN ZALANTZAK ETA TRISTURAK

Miskiren 2004ko kanpaina: Apadrinazioak eta Elkarterako bazkideak lortzea. Ekaina, uztailea eta abuztua: euro baten truke boletoak saltzea. 10 sari egongo dira; bi pertsonentzako afariak herriko jatetxe desberdinetan. Urria, azaroa eta abendua: Gabonetako boletoak saltzea. Oraindik erabakitzeke dauden opariak eskainiko dira.

Ezer gutxi! Aurtengoan gauza gutxiago egiteko asmoa geneukan, baina... gauzak ez zaizkigu espero genuen bezala atera, eta kanpaina hau antolatuta behar izan dugu. Apirilean diru laguntza eskaera luzatu genion Eusko Jaurlaritzari. Lehenengo aldia zen, eta ilusioz beterik geunden, izan ere, daukagun laguntza apurrarekin, Miski proiektu hutsa izatetik errealitate izatera pasatu da. Eusko Jaurlaritzaren laguntzarekin gauza mordoa egingo genuela uste genuen. Azkenean ez dugu lortu Cuscoko erakundeen babesa (ezinbesteko baldintza), eta gure proiektua hutsean geratu da. Hau gertatzea arraroa dela pentsatuko duzue, beharbada Miskik egiten duena ez dela serioa... gauzak ez dira horrela. Gaur egun, Miskik 124 haur eta gazte dauka eskolatuak, baina ez dute gainontzeko Gobernu Kanpoko Erakundeen moduan egiten, eta hori ez dute gustuko. Gainontzeko laguntzaileen modukoa izan behar da, dirutza handiko proiektu baten parte izan, bidai txartela eta gainontzeko gastuak ordainduta eduki eta gainera soldata on bat jaso... (benetan behar dutenez diru gutxi geldituz). Honela ondo hartuko gintuzkete, baina ni bezalako zorotxo batek zuzentzen duen proiektu desberdin honekin traba egiten dugu.

Honekin guztiarekin zalantza eta tristuraz beteta nago, izan ere, lan handia egin behar baita, umeak eskolatu ahal izateko, eta gero eta zailagoa egiten zait kalean eskatzea. Guk ere arazoak ditugu, baina ezin dugu gure izpiritua solidarioa galdu. Bidaia ordaintzen didatela eta soldata on bat jasotzen dudala uste duten horiei esan nahi diet, orain arte nik neuk ordaindu dudala, eta aurtengoan bidaiatuko nuela uste nuen bertan lan egiteko, baina ez dakit zer gertatuko den. Zuen laguntzarik gabe ezin izango genuke ezer egin. Umeak eskolatzeko gain, Peruko Elgoibar izeneko miraria ez litzateke existituko. Baina besteak beste, lotsagabe bat naizela esaten dutenez, gauzak ez direla hain errazak izan esango dizuet, eta lotsarik gabe esaten dizuet, Miskik kalean ematen duen larekin ados ez bazaudete, ez kasurik egin, baina benetakoak ez diren gauzengatik ez esan ezer gure kontra.

Zuen laguntzaren zain, ea 100 apadrinazio egitea lortzen dugun; haur horien ikasketak bermatuko genituzke honela. Nire zalantza eta tristuratik, barkatu gogor esandakoak.

Gemma Agirregomezkorta  
15.351.164-K

# Urruzunoren begi ezkutua

## Sua sutan



Ken ezazu zure oinaze  
perfumatua  
bere masail minduetatik,  
aldendu beregatik,  
bularra izozten dizun hatsa.

Bihotzean zauritu zaitu, odolusten ari zara,  
denbora biriketean harrapatzen

Sutan erre zenuen gorputza  
suak hartutako zure gorputzaren klaskadan,  
sua sutan itzal zedin.

Ozeanoak malkoz betea daude  
maitasuna hutsune itoez,  
eta semafoeren keinuz prostituten begiradak.


Maite Uriarte

ASTEKARIA

# BARREN

Nafarroa enparantza, 2  
20870 ELGOIBAR  
☎ 943 74 41 12  
Publizitatea:  
☎ 943 74 37 04  
Faxa: 943 74 37 04  
E-posta:  
barren@topagunea.com  
Helbide informatikoa:  
www.topagunea.com/barren  
ARGITARATZALEA  
Elgoibarko Izarra

LAGUNTZALEA Elgoibarko Udala KOORDINATZALEA Ainhoa Andonegii ZUZENDARIA Asier Orbea PUBLIZITATEA Amaia Erkizia MAKETZAZALEA Jaione Unanue GERENTZIA Jon Peli Uriguena KOLABORATZAZALEAK Jasone Osoro, Ainhoa Lodoso, Nestor Fuente, Pello Mendizabal, Edurne Bilbao, Gotzon Arrieta, Lorea Perez de Albeniz, Jokin Martinez, Montse Arregi, Juanito Gorostiza, Kokoe K.E. eta Urruzuno L.T. AZALEKO ESAERA ZAHARRA Gotzon Garateren liburitik INPRIMATEGIA Gertu Koop. E. TIRADA 4.220 ale LEGE GORDAILUA SS-1.038/92 ISSN 1139-1855



Elgoibarko Udalak, Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak  
eta Foru Aldundiak diruz lagundutako aldizkaria.





KEXAK

◆ Herritar batek esan digunez, **ez zaio ondo iruditzen eibartarrek Mintxetako igerilekuetan doan sartzeko baimena izatea** : “Egunkarian irakurri nuen Eibarko igerilekuan egiten ari diren obrak grebaren ondorioz atzeratu egin direla, eta ondorioz, eibartarrek doan izango dutela Mintxetako igerilekuetarako sarrera. Kabituko al gara herritarrak Mintxetan, Eibarren eibartarrak kabitzen ez direla jakinda? mereziko al du udako bonoa ordaintzeak?”.

◆ Herritar batek azaldu digunez, **Trinitate Jaietako Ferian zenbait animalik jasandako egoera ez zen batere egokia izan**: “Feria oso ondo egon zen, baina zenbait animalik asko sufritu zuten. Kaiola batzuk oso txikiak ziren, eta animaliak ezin ziren mugitu ere egin. Kaiola batean basurde bat eta lau basurdekume zeuden, denak elkarren gainean, sekulako beroa jasaten eta mugitu ezinda. Espero dut datozen ferietan Udalak kontuan izan ditzala honelako detaileak.”



◆ **Erretxindi auzoko bizilagun batek esan digunez, beraien auzoan ez dago ontziak biltzeko kontenedorerik**: “Erretxindi auzoan ehun lagun gutxi gorabehera bizi gara, eta ez daukagu ontziak biltzeko kontenedorerik. Lekua soberan dago kontenedorea ipintzeko, beraz, ez dugu ulertzen zergatik ez duten jartzen. Lehenago ere kexatu izan gara, eta egoerak berdin jarraitzen du. Hurbilen dagoena Arregitorren dago, eta hara joatea poltsak beteta ez da batere eroso. Hau al da modu hobereena jendea birziklatzera bultzatzeko? Kuriositate hutsa: birziklatu gabeko plastikozko ur botila batek, 150 urte behar ditu desagertzeko”.



TXALOAK

◆ Herritar batek **Trinitateetako Nagusien Danborradako antolatzaileak txalotu nahi ditu**: “Benetan giro polita jarri zuten Elgoibarko kaleetan, eta txalo handi bat merezi dute bai antolatzaileek, eta baita partaideek ere. Ea urte askoan horrela jarraitzea lortzen duzuen”.

Barrak, Birrak eta Barreak



# Danobat enpres

*Danobatek 50 urte bete ditu aurten, eta urrezko ezteiak ondo baino hobeto ospatzeko asmoz, ekitaldi desberdinak antolatu dituzte. Joan zen maiatzaren 21an enpresako bazkide sortzaileei omenaldia egin zieten Herriko Antzokian. Honekin batera, Danobaten historia eta etorkizunera begira dituzten asmoak biltzen dituen liburua kaleratu dute. Bideo bat ere prestatuta daukate, erakusketak, hitzaldiak, eta Danobateko tailerreko eskuliburua. Elgoibarko Makina Erreminta alorrean zeresan handiko enpresa dugu Danobat, eta gaurkoan bere hasierako etapa nolakoa izan zen kontatuko dizuegu.*

## LANGILE BATZUEN ILUSIOA

16 langileren ekimenez sortu zen Danobat 1954. urteko urtarrilaren 1ean. Garai egokia zen aukera berriak sortzeko baina, aldi berean gabeziak eta urritasun ekonomikoa ere handiak ziren. Testuinguru honetan, “Arana y Uribe” enpresako langile batzuk hainbat bilera egin zituzten 1953. urtean, makina erreminta ekoiztuko zuen lantegi berria sortzeko asmoz.

Elgoibarko La Amistad kafetegiko lehenengo solairuan bildurik, Danok Bat izenez bataiatu nahi zuten tailerraren fundatzaileek, lantegia sortzeko erabakia hartu zuten. Marka hori erregistratuta zegoenez, azkenean Danobat izena ipini zioten.

### DANOBATEKO BAZKIDE SORTZAILEAK

Angel Arriola Zamakola (Eibar)  
Pedro Azpiazu Altuna (Elgoibar)  
Benito Bastida Zubiaurre (Elgoibar)  
Felix Etxeberria Larrañaga (Elgoibar)  
Juan Etxeberria Larrañaga (Elgoibar)  
Ignacio Garate Bastida (Mendaro)  
Juan Garate Bastida (Mendaro)  
Jose Mari Gil Zengotita (Elgoibar)  
Manuel Gil Zengotita (Elgoibar)  
Julian Laskurain Ajubita (Elgoibar)  
Frantzisko Leiaristi iriondo (Elgoibar)  
Emilio Odriozola Aranberri (Elgoibar)  
Atanasio Olazabal Eizagirre (Mendaro)  
Polentxi Osoro Unzueta (Elgoibar)  
Sabin Osoro Unzueta (Elgoibar)  
Lucio Sasiain Etxaniz (Azkoitia)

## ARTEZTEKO MAKINA UNIBERTSALAK

Hasieratik artezteko makina unibertsalak fabrikatu zituzten. 1954an kanpoko gainazalak artezteko lehenengo makina unibertsala egin zuten (RE 600 modelo). Urte batzuk beranduago, 1958an, barneko gainazalak artezteko makina egin zuten (RIL 600 modelo), eta hura izan zen mota horretan Estatuan fabrikatu zen lehenengoa. Teknologiaren ikuspegitik aurrerapen handia izan zen.

## KOOPERATIBA IZAERA

Hasierako erabakia izan zen: langile bakoitzaren enpresa eta lantegietatik independizatu, kooperatiba izaerako ekimen propioa sortuko zuten, honela, langile guztiak modu berean parte hartu ahal izateko. Sozietaterako forma juridiko bila hasi, eta ez zuten modu egokirik aurkitu, garaiko merkataritza elkarteetarako legeak ez baitzetozen bat kide fundatzaileek zeukaten planteamenduekin. Honela, beraien nahi guztiak bilduko zituen enpresa barneko agiri bat sinatu zuten: “merkataritza elkarte pribatua izango zen, baina hirugarrenei dagokienez Sabin Osoro bazkidearen izenean agertuko zen”. Bazkide fundatzaile bakoitzak 30.000 pezeta jarri zituen hasierako kapital giza. Lehenengo tailerra Azkoitiko bidean jarri zuten. 450 metro karratuko lokala zen, eta urtebete inguru pasatu zen bazkide sortzaile guztiak bertan lanean hasi arte.

1966ra arte egon zen formula juridiko honekin, eta orduan onartu zuten legez eta behin betiko Industri Kooperatiba Elkarte bihurtzea. Enpresa garapenaren eredu berezi eta partikular baten adierazle bilakatu zen Elgoibarren, Arrasateko esperientzia kooperatiboari aurre hartuta (bere lehenengo enpresa Ulgor izan zen, gaurko Fagor Etxetresna Elektrokoak, eta Danobaten ondoren sortu zen).

*Ermuaren kaleko lokal batean jarri zuten Danobateko lehenengo lantegia.*



# aren urrezko ezteiak



## HIRU ERREALITATE BAT EGINDA: DANOBAT

1969. urteko urtarrilean Eguzki, Acme-Deba eta Danobatek bat egin zuten. Beraien jarreretan gero eta hurbilago zeuden, eta ondorioz enpresa kooperatibo handi bat sortzeko ideia gero eta indartsuagoa zen. Aurrerapauso honetan, Euskadiko Kutxak bere babes eskaini zien. Aurrezki kooperatiba hau helburu nagusi batekin jaino zen 1959an: sortu berri ziren kooperatibek beraien garapenerako behar zuten babes ekonomikoa eta gizarte mailakoa ematea. Lankide aurrezkiaren babes erabakiorra izan zen Elgoibarko kooperatiba proiektuari dimentsio berri bat emateko.


## MERKATUAREN KUDEAKETA

Danobat berriak nazioarera zabaltzearen aldeko apustua egin zuen, eta esportazioari ekin zioten. 60. hamarkadaren erdialdean nazioartekotzearen auziak berebiziko garrantzia hartu zuen Danobat, Eguzki eta Acme-Debako arduradunentzat. 1967an agertu ziren hiru enpresak bat eginda Hannoverreko EMO azokan. Esperientzia garrantzitsua izan zen merkatuaren mugak zabaltzeko. 1970ean Arriaga auzoko instalazio berri eta modernora aldatu zen Danobat.

## ELGOIBARKO MAKINA ERREMINTAREN TRADIZIOA

Gerrek markatutako lehenengo mende erdiaren ondoren, lehengai, energia eta logistikan urritasuna izan arren, elgoibartarren trebetasunak makina erremintak ekoizteko hainbat tailerren sorrera bultzatu zuen. Elgoibarrek garapen ikusgarria jasan zuen, eta industria arloan Gipuzkoako gune garrantzitsuenetako bat izatera iritsi zen.


Gaur egun, makina erremintaren produkzio gune nagusia da Estatuan. Sektoreko enpresen %15a eta horrek sortzen dituen lanpostuen %25a gure herrian biltzen dira.



## DANOBATEKO TAILERREKO ESKULIBURUA

Danobatek dagoeneko hiru urte pasa daramatza euskara plan batean murgilduta eta azken urteotan hainbat gauza egin dira, langileen arteko harremanak euskaraz izan daitezen, bai ahoz eta baita idatziz ere.

Euskara plan horren baitan, 2003an langile batzuen ekimenez hiztegi tekniko bat prestatu zen. 50. urteurrena aprobetxatuz lan sakon eta mardulagoa egin dute. Tailer munduan, esku artean erabiltzeko datu praktikoak euskara hutsean biltzen dira liburu honetan: muntatzaile, diseinatzaile eta mekanizatzaileentzako erabilgarria den materiala, hau da, trigonometria, neurrien konbertsioak, marrazketako arauak, materialei buruzko informazioa, oinarriko kalkuluak nola egin, etab.



## Elgoibarko 32 enpresa daude Bilboko Makina Erreminta Bienalean

Bihar bukatuko da Bilboko Azokaren 23. edizioa

**E**kainaren 7tik 12ra bitartean ospatuko da Bilboko Azokaren 23. edizioa. Aurtengoan, toki berria estreinatu dute gainera, San Mameseko erakustazokari agur esan, eta Barakaldoko Bilbao Exhibition Centre erakustazoka berrian antolatu baitute Makina Erremintaren Bienala.



Edurne Bilbao

*Bienaleko irudi bat.*

### Elgoibartik 32 enpresa

841 stand desberdinetan banatuta, 1894 enpresa egongo dira ikusgai azokan. Horietatik 169 dira gipuzkoarrak, eta 32 Elgoibarko enpresak dira. Makina Erremintaren sektorean nagusi da Elgoibar, eta horren adierazle dira 32 enpresa horiek. Aipatu beharra dago, enpresa horietatik sei, Elgoibarkoak izan arren, gaur egun Itziarren daudela.

### Krisi egoera

Makina Erremintaren sektorea krisi egoeran dago azkenaldian, eta Elgoibarren ere nabaritu da hori. Bilboko azokan erakunde publikoen laguntza eskatu zuen Rafael Barrenetxea AFMko zuzendariak, izan ere, sektorearen berreskurapenerako ezinbestekoa baita haren iritziz.

### ELGOIBARKO ENPRESAK

Bronces Garitano	Goratu
Burgelu S.L.	HRE Hidraulic
Cometel	IMT S.A.
D+S Sistemas	I-metala
Danobat	Kondia
Estarta	Lan-bat
Etxe-Tar	Lan-bi
Ferreteria Unceta	Maquinaria Aristi
Fund. Fatronic	Sariki
Gaindu	Unitesa
Goiti-Danobat	Pixel
Goitek Sistem	Pneumax

### ELGOIBARTIK ITZIARRERA JOANDAKOAK

Mupen	Irudex
Ger	CME
Anayak	MYL

## 514 kontsulta izan zituen Kontsumitzaileen Informaziorako Udal Bulegoak 2003an

499 informazio kontsulta eta 15 salaketa izan ziren

**2003**. urtean 514 kontsulta jaso zituen Kontsumitzaileen Informaziorako Udal Bulegoak, aurreko urtean baino 25 kontsulta gutxiago. Guzti haueetatik 499 informazioa eskatzeko kontsultak izan ziren eta 15 bakarrik izan dira erreklamazio edo salaketak. Iazko urtetik erreklamazio kopurua erdira jaitsi da. Aurtengoan telefonia alorra izan da salaketa edo erreklamazio gehien izan duen alorra, guztira 8 salaketa izan direlarik alor honetan. Informazioa eskatzeko kontsultei dagokionean, berriaz, etxebizitzaren inguruko alorra izan da nagusi. Guztira 251 informazio kontsulta egin dira etxebizitzaren inguruan. Kontsumitzaileen Informaziorako Udal Bulegoa, astelehenetik ostiralera, goizeko 9:00etatik 13:00etara dago zabalik herritar guztien zerbitzura merkatu plazan.

### KONTSULTAK-INFORMAZIOA

Etxebizitzak	251
Telefonia	30
Merkataritza	30
Aseguruak	30
Gremioak	28
S.A.T.	16
Administrazioa	15
Auto konponketak	12
Banketxeak	8
Gas-a	6
Garraioa	5
Tindategiak	4
Bidai-agentziak	4
Argi indarra	3
Publizitatea	2
Elikadura	2
Besterik	53



*Amaia Noguero, Kontsumitzaileen Informaziorako Udal Bulegoaren arduraduna.*



## Herriko merkatariaiek etorkizunerako irtenbide bila ari dira PERCO planarekin

Eusko Jaurlaritzak bultzatutako Merkataritza Berpizteko Plan Berezi (PERCO) honen helburua Elgoibarko alde zaharreko merkataritza indarberritu, eta etorkizunean izango dituen zailtasunei aurre egiteko irtenbideak bilatzea da. Lanean hasteko batzorde bat eratu dute dagoeneko. Bertan, Txankakua Elkarteak hainbat denda (Osoro, Julene, Luvik, Garate, Sara), Elgoibarko Udala, Merkataritza Federazioa eta Merkataritza Laguntza Teknikorako Kabinetea (IKEI) daude.

Hasteko, IKEI enpresak herriko merkataritzaren egoeraren ikerketa egingo du. Besteak beste, herritarrek erosketak egitean dituzten ohiturak eta eskaintza komertziala aztertuko dira. Ikerketa hau



egiteko telefono bidezko inkestak egingo zaizkie erosle eta merkatariei; horretarako Txankakua Merkataritza Elkarteak herritar guztien kolaborazioa eskatu du.

Hasierako diagnostikoa egin ostean, herriko merkataritza berpizteko egitasmoak proposatuko dira.

## "Eko Astea" erakusketa bihar, hilak 12, Plaza Handian

Debegesak antolatuta, paisaiaren ikuspegitik interesgarriak diren bailarako lekuei buruzko erakusketa ibiltaria izango da bihar, hilak 12, Plaza Handian. Goizeko 11:00etatik arratsaldeko 18:30era, ekintza desberdinetan parte hartzeko aukera izango da bertan: antzerkiak, lore lehiaketa eta Karakatera irteera besteak beste. Honekin batera, Debararrenako paisaia interesgarriekin osatutako gida turistikoa jarriko da salgai euro baten truke. Eko Astea, ingurumenarekiko sentsibilizazioa bultzatzeko Agenda 21 programaren barnean antolatzen da. Bere helburua herritarrek ingurunea errespetatu eta gure gizarteko gehiegizko kontsumoaren inguruko hausnarketa egitea da.



## Debararrenako Parkinson gaixoentzako lokala inauguratu dute

Debararrenako Parkinson gaixoentzako lokala inauguratu zuten ekainaren lehen Eibarren. Eskualdean 200 bat Parkinson gaixo daude, eta 13 bazkide erabiltzen dute Aspargui Parkinson Gaixoen Senideen Elkarteak Ipurua kiroldegian duen lokala. 2002ko apirilean, Debararrenako Parkinson gaixoei arreta eskaintzeko premiaz ohartuta, Donostiako Asparguiri eskaera egin zioten, ordura arte Donostiara joaten baitziren.

Debararena osorako zerbitzua eskaintzen dute lokalean, astelehenetik ostiralera, arratsaldeko 17.00etatik 19.00etara. Bertan, fisioterapia eta psikologia lantzeko aukera dute. Laster hidroterapia, logoterapia, risoterapia eta garraioa gehitu nahi dituzte. Gaixo bakoitzari bere premien arabera tratamendua eskaintzea da helburua, eta horretarako, ahalik eta bazkide gehien egotea komeni da.

## 1979ko EAJ alderdiko zinegotzi taldea omendu zuten

Joan zen ekainaren 4an, 1979. urtean EAJko zinegotzi taldea osatzen zuten partaideak omendu zituzten. Sigma jatetxean egin zuten afaria, eta 90 alderdikide bildu ziren guztira. Hauen artean, Gipuzkoa Buru Batzarreko presidentea, Joseba Egibar izan zen gonbidatu berezi moduan. Ondorengo argazkian 1979ko EAJko zinegotzi taldea ageri zaigu. Argazki bat gaur egungoa da, eta bestea 1979koa. Gogora ditzagun zeintzuk diren garai hartako zinegotziak. Ezkerretik eskumara zutik: Jose Mari Oruesagasti, Javier Andonegi, Jesus Mari Zabala, Imanol Konde eta Javier Arrizabalaga. Eserita, ezkerretik eskumara: Jose Mari Garate, Luis Arrieta, Maria Ecenarro eta Jesus Mari Etxeberria.



## Triska Dantza Elkarteak kurtso bukaerako jaialdia antolatu du



Aurtengoan ere Triska Dantza Elkarteak kurtso bukaerako jaialdia antolatu du. Datorren ostegunean, ekainaren 17an izango da arratsaldeko 10:00etan Herriko Antzokian. Elgoibarko ikasleek gain, Eibar eta Debako ikasleak ere arituko dira. 115 ikasle inguruk hartuko dute parte. Sarrerak aurrez erosi daitezke, 2 euroren truke Pitxintxu liburu dendan.

## Udalak 3.000 eurora arteko isunak jarriko dizkie kalean edaten dutenei ZER IRUDITZEN ZAIZU UDALAK "BOTEILOIA" REKIN BUKATZEKO HARTUTAKO NEURRIA?



**ION MENDIZABAL**  
22 urte, ikaslea

Ez zait irtenbide egokia iruditzen, gogorregia da. Beste konponbide batzuk topatu behar dira. Gazteentzako ekitaldi alternatiboak jarriz etekin handiagoa lortuko litzateke.

**VERONICA PEREYÓ**  
25 urte, peoia

Oso ondo iruditzen zait. Egoera hau lotsagarria da, eta neurri gogorrek hartu behar dira. Ez dakit zerbait lortuko den, baina saiakera egokia dela uste dut.



**ELENA ETXANIZ**  
57 urte, etxeakoandrea

Ez da ezer konponduko. Umien edukaziotik ein bihar jako honi aurre, ta gurasuek kontrol haundixaua euki biharko lukete. Arazua sakona da, ta etxetik hasi bihar da konponbidia.

**JULIO CUESTA**  
38 urte, teknikaria

Zerbait egin behar dela argi dago, baina ez dakit isunak jartzea modurik egokiena den. Heziketa arazoa da gehiago, eta Elgoibarren tradizio modukoa da. konponbide zaila dauka arazo honek.



**IBAN ROJO**  
22 urte, arotza

Bai, honekin bukatzeko gogorra izan behar da, bestela jendeak ez du kasurik egiten. Neurri hauekin kalean edan aurretik jendeak ondo pentsatuko du. Joan den larunbatean igarri da neurri hauen eragina.

**DAVID BARRIGA**  
25 urte, langabetua

Gaizki iruditzen zait, neurri gogorregia da. Nere ustez, gazteek kalean edateko eskubidea izan beharko lukete, eta gero dena txukun laga.



Tel: 943 74 10 11

- ⊗ IKASTARO TEORIKO INTENTSIBOAK EUSKARAZ eta GAZTELANIAZ.
- ⊗ ZIKLOMOTORREKO LIZENTZIA ASTEBETEAN. **AZTERKETARIK GABE!**
- ⊗ IZENA EMATEAN %10EKO BEHERAPENA

**Gaindi ezazu motorraren teorikoa 16 urte bete aurretik eta autoaren azterketa teorikoa 18 urte bete aurretik!**

*Zatuz informazio eske!*

## Comenius programaren barnean Holanda, Norvegia eta Alemaniako irakasleak izan dira Elgoibarren

Elgoibarko BH Institutuak nazioarteko Comenius programaren barruan proiektu berri bati ekin zion iaz. Karrozeria eta pintura arloan kanpoko bazkideak topatzeko interes berezia zeukaten, eta Europa mailan zer egiten ari diren ikusi nahi zuten. Horrela 4 ikastetxe sartu ziren hiru urte iraungo dituen "European Coating Network" izena duen sarean: Alemaniako Adolph Kolping Schule, Norvegiako Lyngdal Videregaende Skole, Holandako ROC Oost Netherland eta Elgoibar BH Institutua.

8 irakasle etorri dira guztira: Norvegiako lau, eta Alemania eta Holandako bi. Martxoan



Norvegian izan zituzten lehenengo bilerak eta oraingoan atzerriko irakasleak etorri dira Elgoibarrera. Urrian eta azaroan Holanda eta Alemanian bilduko dira.

## Ekainaren 18an bukatuko dira Kiribilkaren udaberriko ekitaldiak

Datorren ekainaren 18an izango da Kiribilka programaren udaberriko azken ekitaldia. Saio honetan "Zirkus Mirkus" ikuskizunaz goatzeko aukera izango dute arratsaldeko 18:30ean Plaza Handira gerturatzen diren haur eta gurasoek. Hiru lagunek osatzen duten zirko handia da Zirkus Mirkus. Magia trukoak, frogak eta jolas desberdinak egingo dituzte haurrekin. Ikuskizuna da baina ez da geldirik egotekoa alde batetik bestera mugitzekoa baizik. Umeen parte hartzea bultzatzen duen ekitaldia da.

Kiribilka programaren barnean, 8. saioa izango da hau. Antolatzaileak oso gustura daude guraso eta haurren partehartzearekin eta datorren irailaren 10ean itzuliko dira berriz jolas, kanta eta eskulan gehiagorekin.

## Herriko Antzokiak gainezka egin zuen Herri Eskolakoek jaialdian



Herri Eskolakoek kurtso bukaerako jaialdia ospatu zuten joan zen ekainaren 3an eta 4an, eta Herriko Antzokia jendez gainezka egon zen bi egunetan. Mota guztietako antzezlanak ikusteko aukera izan zuten bertara hurbildu zirenek, eta barre algara artean agurtu zuten ikasturtea. Irakasleek dantza eta antzerki bikainak eskaini zituzten, eta sekulako artistak direla erakutsi zuten.

## Herri Eskolakoak Aralarren izan ziren

Herri Eskolako Mendi Taldeak antolatuta, Aralarra egin zuten ikasturteko azken irteera maiatzaren 23an. Autobusez joan ziren Aralarko Mikel Deunaren santutegiraino eta eliza bisitatu ostean, Altxueta (1323m) mendia igo zuten. Jaitsitakoan, Iribas herrixkara joan ziren, eta bidean Larraun errekaaren sorrera ikusteko aukera izan zuten. Honekin batera, 5 irteera edo gehiago egin dituztenei sariak eman zizkieten. Aurtengoan 25 haur izan dira sarituak. Duela hiru urte sortu zen Herri Eskolako Mendi Taldea, eta esan digutenez, aurtengo finkapenaren urtea izan da. 10 irteera egin dituzte ikasturtean zehar eta batz besteko ia 50 pertsona bildu dira bakoitzean.



## Azpeitiko ikasleek antzerki emanaldia eskaini zuten Elgoibar Ikastolan



Azpeitiko Ikasberri Ikastolakoek antzerki emanaldi bat eskaini zuten Elgoibar Ikastolan joan zen maiatzaren 28an. Ikastolatik esan digutenez, primerako aktoreak direla erakutsi zuten eta publikoak txalo zaparrada handi batekin eskertu zuen beraien lana. Oso ondo pasatu zuten eta nahi dutenean berriro etortzeko gonbidapena egin zieten.

## DBHko ikasleak agurtu zituzten Pilar Ikastetxean

DBHko ikasleei agurra egin zieten ekainaren 4an Pilar Ikastetxean. Emozioz beteriko ekitaldia izan zen. Guraso eta irakasleak eskertu nahian, agurra dantzatu zuten hiru ikasleek. Ondoren diploma banaketa egin zuten, eta ekitaldiari amaiera emateko, luntxa izan zuten ikastetxeko frontoi berrian.





# 10 bidaiak zozketan K a r i b e T u n i s i a Itsas bidaiak D u b l i n F i t e r o

## Ekainaren 12tik aurrera



Laguntzaileak:



Euskaldunok behar dugun **berria**

# txiki?

# BARREN

LHko eta DBHko ikasleekin egindako 11. gehigarria

**Ezkiotxaso herrikoa dugu Gorka Igartua. Telebistan hasiberria da oraindik, eta dagoeneko 6 urte daramatza bertan lanean. Goenkale telesailaren jarraitzaileek Gutu bezala ezagutuko duzue, eta beste askok Elgoibarko kaleetan ikusi izanaz, izan ere, IMHko ikaslea izan da, eta askotan ibili izan da gure herrian parrandan.**

## Gorka Igartua Goenkale Telesaileko aktorea

### Nola hasi zinen Goenkalen?

Kasualitatez izan zen. Antzerkia egiten zuten lagun batzuei kasting-era lagundu nien, eta nik ere egin nuen proba. Hartu egin ninduten, eta sorpresa handia izan zen niretzat.

### Goenkaleko Gutik ba al dauka Gorka Igartuaren antzik?

Niri ez zaizkit horrelako gauzak gertatzen, baina pertsonaia guztiek dute aktorearen antz pixkat, norberak jartzen baitizkio sentimenduak.

### Uste al zenuen Gutiren paperak hainbeste iraungo zuenik?

Ez. Hasieran izugarri kostatu zitzaidan aktore lana ikastea. Posturak, keinuak... gauza asko eduki behar dira kontuan, eta nik denak nahasten nituen.

### "Hospital Central" telesaillean ikusi zintugun. Nolako esperientzia izan zen?

Oso polita, baina azentuarekin

obsesionatuta nengoen eta sekulakoa bota nuen. "Ojo por ojo" esan beharrean, "ojo porrojo" esan nuen.

### Aktore izateaz aparte, zer egiten duzuz?

Ingeniaritza munduko ikasketak burutu ditut. Elgoibarko IMHn lehenengo, gero Eibarren eta orain Donostian nago. Ea laster bukatzen dudana.

### Aktore ala ingeniari moduan ikusten duzuz zure burua gehiago?

Momentuz aktore bezala, baina beharbada, hau bukatzen denean nire ikasketen alorrean sartzen saiatuko naiz.

### Zein telesail edo filmetako protagonista izan nahiko zenuke?

Aukera izango banu, ia denak egingo nituzkeela uste dut.

### Nola ikasten dituzuz Goenkaleko gidoiak?

Azken 10 minutetan.



## MOTX-MOTXIAN

**Definitu zure burua 3 hitzetan:** Lagunkorra, parranderoa eta lotsatia.

**Akats bat:** asko

**Amets gaizto bat:** istripuak, bote prontoan esnatzen naizen horietakoak.

**Nori emango zenioke belar-rondoko bat?**

Telebistan agertzen diren askori.

**Gogoan al duzuz zure lehenengo muxua?** Bai, parke batean, lagun bat zuhaitz atzetik begira nuela.

**Goenkale ala Hasiberriak?** Orain, Goenkale.

**Antzerkia ala telebista?** Telebista.

**Sekula egingo ez zenukeen papera?** Paper guztietara irekita nago.

**Zertan zara oraindik hasiberria?** Aktore lanean, hau ez da sekula erabat kontrolatzen.

**Egusentia ala ilunabarra?** Ilunabarra.

**Zer lotsatzen zaizu?** Gauza askok.

**Ikusezina bazina?** Gaiztakeriaren bat.

**Bidaia bat, nora?** Azkena La Mangara egin dut, eta Egiptora joango nintzateke.

**Gustuko telesail bat?** Los Serrano, 7 vidas...

**Musika talde bat:** Asgarth

**Ikusezina bazina?** Gaiztakeriaren bat.

**Autografo asko sinatzen al dituzuz?** Sinatzen dudanean, bestearena eskatzen dut beti.


**Biluztuko al zinategi telebistan?** Ez.

**"Kasualitatez hasi nintzen Goenkalen lanean"**

# IRAKASLEARI AZTERKETA

## URKO GALDOS

HEZKUNTZA ETA HIZKUNTZA  
ERREFORTZUTAKO IRAKASLEA



- 1 Irakasle ala ikasle hobe a zara?**  
Irakasle, baina irakasle izanda ikasten jarraitzen da.
- 2 Gustuko esaldi bat?**  
Zenbat eta gehiago ikasi, zenbat ez dakigun konturatzen gara.
- 3 2 + 2 beti al dira lau?**  
Bai, 2 eta 2 lau dira. Sinplea da.
- 4 Zer da ikasleei gehien errepikatzen diezuna?**  
Ez dela "lorito" baten moduan ikasi behar, logikaz baliatu behar direla, alegia.
- 5 Irakasle bat zutaz maiteminduko balitz?**  
Denborarekin pasako zaiola esan.
- 6 Aurrean ikaslerik onenak ala txarrenak?**  
Tartekatuta, txarrek onen eragina jaso dezaten.
- 7 Irakasle batek egin dizun galderarik zailena?**  
Eta zuk nola dakizu hori? Errepikatuenetakoa da.
- 8 Irakasle garaiko oroitzapen bat?**  
Etika eta bizitzari buruzko hainbat gauza irakatsi zizkigun irakasle bat. Ahoazabalik entzuten nion.
- 9 Zer irakasgaitako irakasle ezingo zinroteke inoiz izan?**  
Hizkuntzekin daukat arazoa. Gaztelerakoa esaterako, ez nintzateke izango.

## NOLAKO ENBORRA... HALAKO EZPALA



**GUMER REY**  
ama

### GALDERAK

1. Zerk lotsatzen zaitu?
2. Zer izan nahi duzu/zenuen handia izatean?
3. Zer da zure seme/amaz gehien gustatzen zaizuna?
4. Eta gutxien?
5. Egun batez Elgoibarko alkatea bazina...
6. Nori kontatzen dizkiozu sekretuak?
7. Desio bat?
8. Famatu bat ezagutzeko aukera bazenu, zein?
9. Zenbat urte izatea gustatuko litzaizuke?



**EDUARDO SANTAMARIA**  
semea

- 1 Ezjakintasunak
- 2 Antzerkiko aktorea. "Farandula" ren mundua gustuko dut
- 3 Oso noblea da
- 4 Batzuetan oso egoskorra da
- 5 Gazteen denbora librerako eskaintza zabalagoa sortuko nuke
- 6 Senarrari
- 7 Azkena bete zait, Pilar Ikastetxeak aurrera jarrai dezala, alegia
- 8 Antonio Gala idazleak interesgarria dirudi
- 9 30-31 urte adin polita da

- Jende aurrean saxofoi kontzertu bat emateak **1**
- Futbolaria **2**
- Gauza asko lagatzen dizkidala **3**
- Haserre jartzen den uneak **4**
- Parke gehiago jarriko nituzke **5**
- Lagunei **6**
- Elgoibarko futbol taldean jokatzea **7**
- Ronaldinho **8**
- 15 urte (11 ditu) **9**

# Txiki inkesta

## Esan neska edo mutil bati piropo bat

**12 urte Nekane Garcia**

Zure begiek txoratzen naute, zure bihotzak maitemindu nau, eta zure barnean dauden sentimenduak niretzat dira.



**11 urte Amaia Conde**

Zure begiak itsasoa bezain politak dira.



**12 urte Jenni Barrientos**

Munduko mutilik ederrena zara.



**11 urte Ion Arrese**

Zure begiek bi ilargi bete moduan distirutzen dute. Zure ileak mendiko loreen usain, leuntasun eta freskotasun berbera dauka.



## Zer da arrazakeria?

**Kevin Arrizabalaga 12 urte**

Zerbait desberdina duten gizakien kontra joatea, normalean azalaren koloreagatik.



**Edu Ibarzabal 11 urte**

Arraza bat bestearen kontra joatea, batzuk besteak baino hobeagoak direla uste dutelako.



**Nerea Cuende 11 urte**

Gizaki batzuk besteak baino gehiago direla pentsatzea, ez onartzea denok berdinak garela.



**Iosu Soraluze 11 urte**

Gizaki batzuk besteak baino hobeagoak direla pentsatzea. Ez onartzea berdinak garela, eta erlijioak edo azalaren koloreak ez duela inporta.



# Paristik natorren *artista bat naiz ni...*

**Olatz Astigarraga & Nagore Larrañaga**  
L.H. 6. maila - Elgoibar Ikastola

**Bertsokak: OPORRAK**

Kurtso amaiera da  
Oporrak badatoz  
Hori dela ta  
Hemen gabiz ilusioz  
Festak maite ditugu  
Ilusio osoz  
Nahiz ta eskolak ere  
Guk maite bai gogoz

Kurtsoan egin dugu  
Guztiok lan asko  
Denek behar baitute  
Ondo ikasteko  
Irakasleek ere  
Pazientzia nahiko  
Denei irakasteko  
Hori behar delako



lehiaketa lehiaketa lehiaketa lehiaketa lehiaketa lehiaketa

*Zer dago faltan, soberan edo aldatuta?*



Erantzunak BARREnera ekarri edo  
posta elektronikoz bidali:  
**barren@topagunea.com**



Aurreko lehiaketako irabazlea: **Miren Viñe**

**Erantzuna:** .....

**Izen abizenak:** .....

**Telefonoa:** .....

**SARIA** Elhuyar-ek eskainitako mahai jokoa  
("GIPUZKOA ZURE ESKU" MAHAI JOKOA + CD-ROMa)



14 urtetik beherakoei zuzendutako lehiaketa.





## Trinitate jaietako begirada

*Eguraldi beroa izan genuen Trinitate Jaietako protagonista nagusia. Hondartzara joatea izango litzateke beharbada logikoena, baina herritarrek ez zuten hutsik egin. Gustu guztietarako ekitaldiak izan ziren asteburu osoan zehar, eta herritarrek ez zuten aspertzeko unerik izan: Feria, artisau azoka, diskofesta, eta Trinitate Jaietako bi tanborradak. Datorren urteko festak iritsi bitartean, hemen daukazue 2004ko Trinitate Jaien errepasoa.*



## Elgoibartarren %41,4ak hitz egiten du euskaraz kalean

laztik hona %3,3an jaitsi da euskararen kaleko erabilera

**E**lgoibarko Udalaren Euskara Batzordeak martxoaren bukaeran eta apirilaren hasieran egindako kale neurketaren arabera, elgoibartarren %41,4ak hitz egiten du euskaraz herriko kaleetan. Azterketa hau egiteko, 6.392 elgoibartarren hizkuntza joera neurtu da, horietatik 2.652 aritzen dira euskaraz.

Ikerketa hau egiteko, Udalak alor desberdinak izan ditu kontuan. Alde batetik, giro desberdinetan jendeak daukan hizkuntza joera neurtu du, eta bestalde, herritarren adina izan du kontuan. Bukatzeko, azken taulan, euskaraz gure herrian izan duen eboluzioa jaso dute.

ADINAREN ARABERA					
ERROLDAK	Haurrak	Gazteak	Helduak	Adinekoak	GUZTIRA
euskaraz (%)	63,6	41	30,7	40,8	41,4

*Adinaren arabeko datuak kontuan hartzen baditugu, haurrak dira euskara gehien erabiltzen dutenak (%63,6). Gutxienez berriz, helduek darabilte euskara (%30,7).*

GIROEN ARABERA						
ERROLDAK	Gazte giroa	Jolaslekuak	Erosketa giroa	Txikiteoa	Ikasleen irteera	Familia giroa
euskaraz (%)	35,2	46,8	37,1	34,2	56,2	40

*Giro desberdinei dagokionean, ikastetxetik irtetea eta jolaslekuetan erabiltzen da euskara gehien. Aurtengoan txikiteo giroa izan da jaitsiera handiena izan duena, eta bera da euskara gutxienez erabiltzen den giroa (%34,2). 2002an igoera nabarmena jasan zuen txikiteo giroak, beraz, aurtengo jaitsiera logikotzat jotzen dute. Pasealeku-jolasleku eta erosketa giroan mantendu egin da euskararen erabilera, eta ikastetxeetako irteera giroan igo egin da.*

EUSKARAREN ERABILERAREN BILAKAERA										
	1994	1995	1996	1997	1998	2000	2001	2002	2003	2004
HAURRAK	%47,3	%58,9	%52,9	%68,6	%68	%66,7	%63	%70,9	%63,5	%63,6
GAZTEAK	%30	%25,2	%29,5	%39,3	%39,1	%37,6	%40	%44,6	%43	%41
HELDUAK	%23,3	%23,4	%23,3	%26,7	%29,8	%27,6	%25,7	%32,9	%35,1	%30,6
ADINEKOAK	%41,5	%39,4	%40,8	%35,1	%40,6	%33,2	%33,2	%40,8	%41,1	%40,8
GUZTIRA	%31,8	%31,9	%31,7	%37	%40,3	%38,3	%37,4	%45,5	%44,7	%41,4

*Elgoibartarren euskara erabilera orokorrak, azken hamar urteotan gora egin duela esan dezakegu. 1994tik gaur egunera, %31,8tik %41,4ra igo da.*

*1994tik 1998ra arte, pixkanaka gora egin zuen euskararen erabilera. 1998tik 2001ra beherakada txiki bat jasan zuen (%40,3tik %37,4ra), eta hurrengo urtean, hau da, 2002an gorakada nabarmena izan zuen (%37,4tik %45,5era).*

*2002ko emaitza izan da azken hamar urteotako onena.*


*2002. urtetik gaur egunera, beheranzko joera izan du euskararen erabilera, %45,5etik %41,4ra.*



### ESKERTZA

2004ko ekainaren 2an, 90 urte zituela hil zen, **JUANA ARBULU AZKARATE**ren bilobak, ilobak, anai-arrebak eta gainerako sendiak, bihotzez **ESKERTZEN** ditu jasotako doluminak, hala nola hileta elizkizunetara agertu izana.





## ANGEL IBARLUZEA

GIPUZKOAKO HIRU-TXIRLO BOLO TXAPELDUNA

“Gazte gutxi datoz bolotara eta zaharrak lagatzen ari dira”

### ■ Gipuzkoako 35. Hiru-Txirlo Bolo Txapelketa irabazi duzu. Espero al zenuen?

Txapelketa hasieran beti daukazu irabazteko esperantza. Gainera, azken urteetan beti lortu dot aurrian ibiltzea. Azken bederatzi txapelketatan parte hartu dot eta lortu dodan hirugarren txapela izan da hau.

### ■ Zenbat bolo saio irabazi dituzu?

Bederatzi saio izan dira eta bakarra irabazi dot, Soraluzeako San Andres bola tokian jokatuakoa, baina erregularitasuna mantendu dot gainontzekoetan. Horixe da garrantzitsuena, saio bakoitzean batez beste 4 txirlo botata txapeletik gertu ibiltzeko aukera handiak daude. Saio guztiak kontutan hartuta 27 jaurtialdi egin eta 81 txirlo bota leikez gehienez. Nik 38 txirlo bota ditut. Iazko txapeldunak, Unai Loiola sanmigeldarrak, 31 bota zituen eta duela bi urte 33 txirlo botata irabazi naban. Urteren batean egon da 42 bota dituenik ere.

### ■ Zein duzu bolatokirik gustukoenena?

San Migelgoa, San Pedrokoa edo plaentxikoa. Zailenetakoak dira eta niretzat zenbat eta zailagoak izan hobee.

### ■ Zenbat lagunek parte hartu du txapelketan?

Batez beste 70 bolari ibili gera saio

bakoitzean. Aurten bajatu egin da, iaz 90 inguru izaten baikinen. Federatukoak 200 bat gera. Adin guztietako partaideak daude, hasi 7 urtetakoetatik eta 70 urtetik gorakoetaraino. Gazteak gutxi datoz, ordea, eta zaharrak lagatzen ari dira. Umeak ere badaude gustura ibiltzen direnak, baina autobusak jartzeko diru pixka bat lortu beharko genuke.

“Aitak eta osabak bolatokia euki zaben San Migelen. Jaiero erromerixa eta boletia egoten zan”

### ■ Sailkapen orokorrean ez ezik bikoteka ere irabazteko aukera duzu Xabier Loiolarekin?

Bai, zapatu honetan erabakitzen dira parretakoak Elgetan. Asola Berriko bikotekarekin berdinduta gaude eta han erabakiko da txapelduna.

### ■ Hau gutxi balitz zure bi semeek alebin eta benjamin mailako txapelketak irabazi dituzte?

Bai, afiziuua dake eta gustura ibiltzen dia. Julen berdinduta ailegatu zen Azkoitiko azken saiora eta irabaztea lortu zaban.

Jonek, berriz, bi txirlo atzetik ailegatu arren, buelta ematea lortu zaban.

### ■ Taldeka ere Sanmigeldarrak nagusi

Bai, San Migel A taldeak irabazi du taldeka. Xabier Loiola, Unai Loiola, Imanol Osoro, Jose Irusta eta nik osatu dogu taldea. Bailerako beste hiru taldek ere parte hartu dabe, 27 lagun gaude federauta guztira. Afizio handia dago hemen eta danok pilan ibiltzen gera, gazte zein zahar. Sariak ere denontzako den kajan sartzen ditugu eta bukaeran afari bat egiten dogu.

### ■ Beste txapelketaren batean parte hartzen al duzu?

Txapelketa ofizialak bi izaten dira, Gipuzkoakoa martxotik ekainera bitartean eta Euskadikoa urria hasieran hasten dena. Lau astetan jokutzen da, bi saio Bizkaian eta beste bi Gipuzkoan. Aurten Gipuzkoako biak San Migelen eta San Pedron izango dira zozketaz hala erabakita.

### ■ Noiz eta nola hasi zinen bolotan?

Txikitari aitak eta osabak bolatokia zeukaten San Migelgo benta aurrean. Jaiero egoten zan erromerixa eta boletia. Bazterreraino ailegatzen ez nintzala akordatzen naiz. Erdian ohol bat jarri eta handik jaurtitzen naban. Auzoan beti egon da bolatokia, lekuz aldatu arren. Gero beti lehengusuakin, Xabierrekin, ibili izan naiz.



Eskuetan alabaxoa duela ageri da Iñaki Izagirre.

**Iñaki Izagirre**, mendizalea

## "Sei mendi martxa egin ditut Hiru Handiak prestatzeko"

### ■ Hiru Handiak (Aitzkorri, Anboto eta Gorbea) proban parte hartu duzu. Zer moduz?

Parte hartu doten 4. aldia izan da. Errespetua ematen daban proba izanik, amaizera joan izan naiz aurrekoetan, baina aurtengoa bizkortxoago egin nahi naban. Urtarrietik aurrera serio entrenatzen hasi eta kilo dezente galdu ostean, nire burua probatu eta zenbat denboran egiteko gai naizen jakin nahi naban. Uste baino hobeto irten jata.

### ■ Lehen 20 sailkatuen barruan sartu zinen 17 ordu eta 34 minutuko denborarekin.

Bai, antolatzaileek gutxieneko denbora bat ezartzen dabe eta ezin da proba 17 ordu eta erdian baino gutxiagoan amaitu. Nire asmoa kontrolatara ahalik eta justuen ailegatzea zen. Uste baino bizkorrago heldu nintzen eta zain egon bihar izan naban. Berez, 16 ordu eta 45 minututan egin nituen 100 kilometroak.

### ■ Erritmo bizia eraman zenuen, hortaz?

Bai, aldapa beherak korrika egiteko aprobetxatu nituen eta 34. kilometrorra arte

orduko zazpi kilometroko bataz bestekoa egin naban. Gabaz egiten den bide zatia azkar egitea nahi nuen, aldea baitago gero Anboto gerizpetan edo eguzki galdatan igo artean.

### ■ Laguntasuna ere izan zenuen, ezta?

Bai, Asier Arrieta goizeko 8:30ean nakan zain Zabal Handin. Berakin igo naban Anboto eta Otxadioraino jaitsi. Han, Roberto Cordon eta Joseba Arrillaga nazkan zain. Azken tramua, gogorrena, egiten lagundu zidaten. Psikologikoki asko eskertzen da.

### ■ Zein da ibilbideko unerik gogorrena?

Niretzat hirugarren etapa, Otxandiotik Gorbealara doana. Saltropora igo behar da eta handik Atxurira. Demaseko igoeria da, baina oraindik Gorbeia azpian zaude. 85 kilometro oinez egin eta Gorbealara igo beharra ez da batere xamurra.

### ■ Zer entrenamendu jarraitu duzu?

Karakate igo eta Irukuztetara joan-etorria antxintxika egitea da entrenamendurik onena niretzat. Maiatzean hasten dira trabesiak eta Hiru

Handietara joan aurretik sei bat martxa egiten ditut.

### ■ Mendi martxa eta lasterketen "boom" modukoa bizi al dugu?

Baliteke bai. Duela 8 urte 300 pertsonak hartu genuen parte eta aurrean ia 800 izan gara. Jendeak gero eta erronka handiagoak jartzen dizkio bere buruari. Lehen Elgoibarko Itzulia egitea asko zen, baina gaur egun txiki geratu da. Lau urtetik hona mendi maratokiak ere asko ugartu dira eta modan daude. Asteburuetan mendian ibili eta astean zehar antxintxika aritzen zirenak mendian lasterka egiten hasi dira. Gainera, marka guztiak hausten ari dira.

### ■ Zer ezaugarri eduki behar dira?

Pixkat terkua izan bida eta zure gorputza oso ondo ezagutu. Zure erritmotik kanpora bazoaz ez dozu 10 orduetik gorako proba bat bukatuko. Oinetakoak ere oso garrantzitsuak dira. Urraturik txikiena nahikoa da proba jasangaitza bihurtzeko. Berdin du egiten dizkizuten gomendioak, zuretzako modukoak topatu bihar dituzu. Nik 8 urte daramatzat zapatila marka eta modelo berdinarekin.

## 9 elgoibartarrek amaitu zuten Hiru Handiak mendi martxa

Joan zen asteburuan ospatu zen Hiru Handiak mendi martxaren XIV. edizioa. Bertan, 13 mendizale elgoibartarrek parte hartu zuten, baina bederatzik lortu zuten bi urtean behin egiten den 100 kilometroko proba gogorra amaitzea. 783 lagun elkartu ziren Zalduekoko irteeran, tartean 40 emakume, eta 508 iritsi ziren

Otxandioko helmugara. bidean Aitzkorri (1.528 m.), Anboto (1.331 m.) eta Gorbeia (1.481 m.) igaro zituzten, Euskadiko hiru gailurrik garaienak, alegia. Alboan elgoibartarrek egin zuten denbora.

Erretiratuak: Luis Fernando Arosa, Luis Canseco, Unai Egaña eta Aitor Gabilondo.

### Sailkapena

Izena	Denbora
1. Iñaki Izagirre	17:34
2. Cesar Fidalgo	19:51
3. Hector Garrido	19:51
4. Nicolas Polo	20:39
5. Severo Perez	21:19
6. Rafael Matias	21:24
7. Modesto Cid	21:25
8. Jesus Maria Gabilondo	21:34
9. Jesus Beristain	22:34

## Jubenilek Euskal Ligan jokatuko dute datorren urtean

C.D. Elgoibarko jubenil mailako taldeak Euskal Ligara igotzea lortu zuen joan zen zapatuan, hilaren 5ean, Mintxetan jokatu zen Hiruko Torneoan irabazi ostean. Bizkaia, Araba eta Gipuzkoako txapeldunordeek hartu zuten parte Hiruko Torneoan eta Elgoibartarrak nagusitu ziren. Lehen partiduan bizkaitarrek eta arabarrek neurtu zituzten indarrak eta Peña Athletic taldeko santurtziarrek 2 eta 0 irabazi zieten Pilar Marianista taldekoei. Bigarren partiduan elgoibartarrak 3 eta 0 irabazi zieten arabarrei eta azken partidu erabakigarrian ere ez zuten



Felix Morquecho

hutsik egin eta 2 eta 0 izan zen bizkaitarren aurkako partiduko azken emaitza. Haundi eta kadeteekin batera igoera lortu duen C.D. Elgoibarko hirugarren taldea izan dira jubenilak.

## Tenis erraketa zartaginaren aurka, apustu bitxia

Euskaldunok apustuzale fama izan dugu betidanik eta baita apustu bitxiak egiteko joera ere. Aspaldian gutxiago entzuten dira, baina oraindik ere egiten dira harritzeko modukoak. Martin Urigoitia "txankletas" eta Kepa Arrieta elgoibartarrek Aiastiako frontoian jokatu zuten norgehiagoka bitxia ikustea besterik ez dago. Apustua zela medio pilota partidu benetan kuriosoa jokatu zuten. Martinek zartagin bat erabili zuen erreminta gisa eta Kepak teniseko erraketa bat. Neurketak ez zuen kolorerik izan eta erraketak aise gainditu zuen zartaginaren

erresistentzia. Aiastiako frontoian 30 lagun inguru bildu ziren eta giro ona izan zen nagusi.



## Zubi Ondoko taldea 3. postuan sailkatu zen Trinitateetako Xake Txapelketan



Goiko ilaran ezkerretik hasita: Jose Luis, David, Juanma, Mikel, Sergio, Jon eta Patxi. Behean: Ana, Roberto, Iban eta Aitor.

Zubi Ondo Elkarteak antolatzen duen Xake Txapelketaren 20. edizioa jokatu zen ekainaren 5ean, Trinitate jaien barruan, Leku Eder parkean. Bertan, hamar herritako beste hainbat taldek hartu zuten parte. Elgoibarko Zubi-Ondo Elkarteak, berriz, bi talde edo ordezkari izan zituen. Ermuako xake taldeak jantzi zuten irabazlearen txapela 27 punturekin. Elorrioko taldeak ere 27 puntu lortu arren, bigarren postuarekin konformatu beharra izan zuen. Zubi Ondo Elkarteko lehen taldea hirugarren postuan sailkatu zen 26 punturekin eta bigarren taldea bederatzigarren postuan sailkatu zen.

## EMAITZAK

### Futbola

Pilar Marianista **0** - Peña Athletic Santurtzi **2** (Jub.)  
C.D. Elgoibar **3** - Pilar Marianista **0** (Jub.)  
C.D. Elgoibar **2** - Peña Athletic Santurtzi **0** (Jub)

### Esku pilota

#### Udaberri Saria

Lagunak **9** - Bergara **18** (Inf.)

#### Lagunak Txapelketa

A. Gurrutxaga **18** - J. Tabira **15** (Benj.)

Gabilondo **18** - Ibarluzea **9** (Benj.)

Gabilondo **18** - Arrieta **12** (Benj.)

I. Ruiz **18** - U. Ruiz **11** (Benj.)

A. Gurrutxaga **18** - U. Ruiz **7** (Benj.)

### Idarraga kafeak 7. saria

HAUNDIko jokalaririk erregularrena 03/04

JOKALARIA ..... PUNTUAK

1- M. Tarragual .....	50
2- Arenas .....	46
3- Arrasate .....	44
4- I. Gonzalez .....	42
5- Guinea .....	35
6- M. Gonzalez .....	34
7- D. Rodriguez .....	33
8- Javi Gomez .....	31
9- Elkoro .....	28
10- Igartua .....	26
11- Navarrete .....	20
12- Martija .....	19
13- Leo .....	14
14- Izagirre .....	13
15- Jakes .....	11
16- Caro .....	6
17- Duarte .....	5
18- Gotzon .....	4
19- Dovao .....	4
20- Mandiola .....	3

## Finalista Eguna domekan izango da Idotorben

Morkaiko Mendizale Elkarteak urtero antolatzen duen Finalista Eguna domeka honetan, hilaren 13an, ospatuko da Idotorben (San Pedro). Domina banaketa 12:30etan hasiko da, San Pedroko baselizan egingo den meza amaitu bezain laster, hain zuzen ere. Nahi dutenek Idotorbera Saturixotik gora oinez igotzeko aukera izango dute. Goizeko 9:30ean izango da irteera Plaza Handian. Domina banaketaren ostean, eguerdiko 14:00etan bazkaria egingo dute.



Gipuzkoako enpresak **kamioi gidaria** behar du. **Erref. 162004001129**

Gipuzkoako enpresak **erizain** behar du. **Erref. 162004001580**

Gipuzkoako enpresak **bulego zuzendaria** behar du. **Erref. 162004002989**

Elgoibarko enpresak **peoi espezialista** behar du. **Erref. 162004004257**

Mutrikuko enpresak **muntaiarako langileak** behar ditu. **Erref. 162004004253**

Gipuzkoako enpresak **mekanikoa** behar du. **Erref. 162004004186**

Eibarko enpresak **sukalderako laguntzailea** behar du. **Erref. 162004004140**

Gipuzkoako enpresak **programatzailea** behar du. **Erref. 162004003998**

Hautagai moduan sartzeari eskatu nahi baduzu **901222901** telefonora deitu edo 'Langai'-k Elgoibarren dituen zentru laguntzaile hauek batera deitu: Elgoibarko Institutua (Peio Juaristi) **943 74 80 19** edo IMH (Nora Ramón) **943 74 41 32** telefonora.

## Lana

### ESKAERA

- ◆ Neska eskaintzen da dependiente moduan lan egiteko. Komertzio ikasketak ditut. **☎ 943 20 02 95**
- ◆ Emakumea garbiketa lanak egiteko prest. **☎ 943 74 22 01 / 652 71 59 08 (Araceli)**
- ◆ Tabernan lan egingo nuke arratsaldetan. Euskaraz badakit. **☎ 699 18 32 99**
- ◆ Emakumea nagusiak zaintzeko prest, orduka, fijo edo asteburuetan. **☎ 626 91 49 04**
- ◆ Gizona arotz moduan edo obrako peoi bezala lan egiteko prest. **☎ 620 074 965 (Luis)**
- ◆ Neska euskalduna umeak zaintzeko prest. **☎ 943 74 30 56**
- ◆ Emakumea goizez edo arratsaldetan umeak zaintzeko prest. **☎ 943 74 27 41**

### ESKAINZA

- ◆ Kamareroa behar da Mendaroko Ormola tabernarako. Arratsaldetan eta asteburuetarako. **☎ 653 74 69 91**
- ◆ Etxeko lanak egin eta umeak zaintzeko pertsona behar da. **☎ 680 669 137 (17:00etatik aurrera)**

## Etxebizitzak

- ◆ Mendaro: Herriko Enparantza. 92m<sup>2</sup>, 3 logela, jangela, sukaldea, 2 bainugela, oso argitsua, kamarotea, garajea, altzariekin, igogailua. Sartzeko moduan. 39.600.000 Pts. /238.000,79 euro. **☎ 943 82 05 10**
- ◆ Etxe eguzkitsua salgai Mendaron. 3 logela, sukaldea, komuna eta ganbarra. Berritua, altzariekin. **☎ 645 72 60 90**
- ◆ Etxea osatzeko pertsona behar da. **☎ 615 76 55 15**
- ◆ Pisu hartuko nuke alokairuan. Gutxienez bi logela. **☎ 943 74 35 99/675 00 84 97 Mari Jose**
- ◆ Etxea salgai Jausoro Plazan. 2 logela, egongela-jangela, komuna, sukaldea, balkoia, garajea. 228.000 euro. **☎ 943 74 34 23/626 42 35 91**
- ◆ Pisu konpartitzeko pertsona behar da. **☎ 645 70 14 93**
- ◆ Etxea salgai Santa Ana kalean. Eguzkitsua, 3 logela, egongela, sukaldea, komuna, despentsa. Bizitzera sartzeko moduan. **☎ 636 22 31 42**
- ◆ Pisu salgai Mendaron. Guztiz eraberritua, bizitzera sartzeko moduan. **☎ 609 96 53 95/650 12 96 05**
- ◆ Etxea salgai Ubitarte kalean. Eguzkitsua, berritua, altzariekin. **☎ 652 71 87 19**

## Lokalak

- ◆ Usurbilen, Urbil merkataritza zentro ondoan, 420m<sup>2</sup>ko lokala salgai edo alokatzeko. Bulego bezala erabiltzeko egokia. Lokal argia, ordenagailua askoentzako lekua, eta sarea. **☎ 943 36 30 40**

## Garajeak

- ◆ Garajea alokatzen da Santa Ana 2an, Ametsa parean. **☎ 615 787857**
- ◆ Garajea alokatzen da Urbitarten. **☎ 943 74 06 88**
- ◆ Garajea alokatzen da Basarte kalean. **☎ 943 20 38 39 (gauetz)**

## Bestelakoak

- ◆ Bi txakurkume oparitzen dira. **☎ 660 511 781**
- ◆ Radiant markako erlojua galdu dut Madala inguruan maiatza hasieran. Urre eta zuri kolorekoa. **☎ 943 53 16 79 (gauetz)**

### OHARRA:

Merkatu txikirako mezuak ekartzeko azken eguna asteazken eguerdiko 13:30a da.

## Salerosketak

- ◆ Sofa bat salgai. 3 jarlekukoa, eta bat relax. Egoera onean. 480 euro. **☎ 943 74 12 62**
- ◆ Golf 1.600 autoa salgai. Urtebete. la berria. 13.000 km. **☎ 943 74 20 39/620 17 37 01**
- ◆ Kymko Dink Solc salgai. 390 km. Berritua, beti garajea. **☎ 607 44 38 10**
- ◆ Seat Toledo Sport 2.0 autoa salgai. 115 cv. gasolina. 160.000 km. SS-AN. Oso egoera onean. 1800 euro. **☎ 617 71 91 21**
- ◆ Citroen ZX autoa salgai. 2.0, 16v. **☎ 659 71 57 22 (Iosu)**
- ◆ Egongelarako egurrezko altzari modernoa salgai. Abedul eta gereziondoakoa. Prezio eta egoera onean. **☎ 636 355 631 Mirtia**
- ◆ Hyundai Poni autoa salgai. SS-AT. Bestate. 30.000 km. **☎ 635 20 88 87**
- ◆ Kotxerako irriti telebista salgai (Alpine). CD kargatzailearekin (6 CD eta MP3) eta telebista sintonizatzailea. 1.300 euro. **☎ 636 607 187**
- ◆ Renault 5 autoa salgai. 750 euro. **☎ 699 81 25 66**
- ◆ 2. eskuko desbrozadora erosiko nuke. **☎ 639 84 10 01**
- ◆ Mountain Bike-a erosiko nuke. Bigarren eskuko, egoera onean. **☎ 943 74 45 16**

## Partikularrak

- ◆ Ingeles klase partikularrak ematen dira. Maila guztiak. Elgoibar eta Mendaron. **☎ 679 11 34 46**
- ◆ DBH eta LHko klase partikularrak ematen dira uztailean. **☎ 625 42 05 49**
- ◆ LHko klase partikularrak ematen dira uztailean. Edozein arlotan. **☎ 606 30 75 63**
- ◆ Ingeleseko partikularrak ematen dituzte uztailean. Maila guztiak. Ingeles filologian lizentziatua. 10 urteko esperientzia. **☎ 943 74 31 67/653 72 28 11**
- ◆ Ingeles partikularrak ematen dira. Maila guztiak. Esperientzia daukat. **☎ 617 35 98 33 (Maria Jesus)**
- ◆ Uztailean LH eta DBHko lengoia eta matematika kalseak emango nituzke goizez. **☎ 943 74 42 06**

## Agurrak

♦ Zorionak **Peru** hilaren 6an etorri zinelako mundura. Gazte Asanbladakoen partez.



♦ Zorionak **Joane**, sorginen artean sorginena, Ekainaren 4an 3 kandelak amatau hitzunan? Zakukada bat musu etzekoen partez.



♦ Zorionak **Maialen**, hilaren 10ean urtebete egin zenuelako.



♦ Zorionak **Ibareri**, hilaren 14an, 9 urte egingo dituzulako. Aitaxo, amatxo eta familiako guztien partez.



♦ Zorionak **Asier Agirregomez-kortari**, bihar, hilak 12, 9 urte egingo dituzulako. Familiakoen eta bereziki, Nekeneren partez.



♦ Zorionak **Maria**, ekainaren 10ean, 5 urte egin zenituelako. Gurasoen, amama Milagros eta bereziki, Andrearen partez.



♦ Zorionak **Igor Aranbarri**, hilaren 8an, bi urte egin zenituelako. Familiakoen partez.



♦ Zorionak **Oihane**, gure etxeko sorgintxoari! Azkenean helduko da ekainaren 14a! Ondo pasa zure bigarren urtebetetzean. Muxu pilo bat etzekoen, eta bereziki, Mikelen partez.



♦ Zorionak **Elena**, bihar, ekainak 12, 10 urte egingo dituzulako. Etxeko guztien partez.



♦ Zorionak **Jone**, ekainaren 2an, sei urte egin zenituelako. Etxeko guztien partez muxu handi bat.

## JARDUERAK

### Araba euskaraz

Arabako Ikastolen Elkarteak antolatuta, Araba euskaraz 2004 ospatuko da datorren zapatuan, ekainaren 20an, Bastidan. [www.araba-euskaraz.org](http://www.araba-euskaraz.org)

### Udako kanpamenduak

Asturiaseko Escuela de Tiempo Libre Caracuel-ek 7 eta 16 urte bitarteko gazteei zuzendutako kanpamenduak antolatu ditu Leonen. 15 eguneko txandatan. Bertan kultur jarduerak, kirol jarduerak eta abentura, natur eta astialdiko jarduerak burutuko dituzte. Epea: plazak bete arte

### Auzolandegiak

Kutzak 15 eta 27 urte bitarteko Gazteak txartelaren jabe diren gazteentzako auzolandegiak antolatu ditu. Informazioa [www.begira.com](http://www.begira.com), [www.gazteaktxa.net](http://www.gazteaktxa.net) web guneetan edo Kutzako bulegoetan. Epea: ekainak 27

## LEHIAKETAK

### Argazkiak

Irungo Argazki Elkarteak Irungo XVIII. Argazki Lehiaketa Herrikoia antolatu du. Bi gai: librea eta Irun. Bi modalitate: zuri-beltzeko argazkiak eta koloretakoak. Gutxieneko tamaina 18x24 cm-koa izango da. Epea: ekainak 14

### Musika elektronikoa

Donostiako Udalak "Donostia Elektronikoa 2004" musika lehiaketa antolatu du. Bertan 30 urtetik beherako sortzaile europar guztiek parte hartu ahal izango dute, musika elektronikoa edozein aldaerako lanak aurkeztuz. Epea: ekainak 18

## LANA

### Lorazaina Bergaran

Bergarako Udalak lorategi zerbitzuko ofizial lanpostu bat betetzeko eta lorategi zerbitzurako langileen lan-poltsa osatzeko deialdia egin du. Baldintzak: Eskolatzeko Ziurtagiria edo LH1 titulua izatea. Epea: ekainak 17

### Administrarien lan-poltsa Azkoitian

Azkoitiko Udalak, behin-behineko beharrak betetzeko administrari lan-poltsa sortzeko deialdia egin du. Zerrenda horrek hiru urteko iraupena izango du. Baldintzak: Batxilergo, LH2 edo titulu baliokidea eta euskarako 2. hizkuntza-eskakizuna izatea. Epea: ekainak 21

### Atezainak Eibarren

Eibarko Udalak 3 atezain plaza betetzeko oposizio-lehiaketa antolatu du. Baldintzak: Eskolatzeko Ziurtagiria edo titulu baliokidea eta euskarako 2. hizkuntza-eskakizuna izatea. Epea: ekainak 22

LENTZERA ETA ETXeko EHUNKIAK

# SARAGUI

San Frantzisko, 44 · Tel.: 943 74 29 42

Familia, bikote eta banakako terapia



► Harreman arazoak:  
 - Familia  
 - Bikotea  
 - Kideak

► Jarrera arazoak  
 ► Porrot eskolarra  
 ► Antzietatea, depresioa, elikagai arazoak...

Edificio Auzora Urtzale kalea, 1 - EIBAR

Minam Mujika Tel. 676 61 70 55  
 Ainhoa Basurko Tel. 615 70 37 25

PSIKOLOGIA

## Farmazia - okindegia

EGUNEZ	GAUEZ	FARMAZIAK
11 Zabaleta	Zabaleta	<b>ESCALA</b> , Rekalde, 1 Soraluze. Tel: 943 75 16 38
12 Etxeberria (Santa Ana kalean)	Etxeberria	<b>FERNANDEZ</b> , Herriko enparantza 4, Garagarza. Tel: 943 75 61 42
<b>13</b> Etxeberria (Santa Ana kalean)	Etxeberria	<b>ZABALETA</b> , Kalebarren, 9 Soraluze. Tel: 943 75 13 84
14 Fernandez	Fernandez	<b>OKINDEGIA</b> <b>11 igandea</b> Eizagirre
15 Yudego	Yudego	
16 Zabaleta	Zabaleta	
17 Etxeberria (Errosario kalean)	Etxeberria	
18 Ibañez	Ibañez	

## ERROMESALDIAK

### Erromesaldia Arantzazura

Ekainaren 13an, domekan, Arantzazura erromesaldia egingo da. Bertan parte hartu ahal izateko autobusak jarriko dituzte Elgoibartik. Goizeko 9:30ean aterako da berau Sigmako errotondatik eta 10:30etarako iritsiko da Arantzazura penitentzi ospakizunetan parte hartzeko garaiz. 12:00etan meza nagusia ospatuko da eta 14:00etan bazkaria ostatuan. Errosarioa errezatu ostean, 17:30ean izango da etxera itzultzeko ordua. Autobusaren eta bazkariaren txartelak Muruamendiaraz gozotegian eskura daitezke 25 euroren trukean. Bezpera arte izango da txartelak erosteko aukera.

## 13 DOMEKIA

### 9:30 MENDI IRTEERA SAN PEDRORA

Plaza Handitik. Antolatzailea: Morkaiko

### 12:00 FINALISTA EGUNEKO SARI

### BANAKETA SAN PEDRON

Antolatzailea: Morkaiko M.E.

### 12:30 UDAL MUSIKA BANDAREN

### KONTZERTUA

Herriko Antzokian

### 15:30 GELATXOREKIN DANTZALDIA

Plaza Handian

## 17 EGUENA

### 20:00 TRISKA DANTZA TALDEAREN

### KURTSO BUKAERAKO JAILADIA

Herriko Antzokian

## 18 BARIXAKUA

### 19:00 EGUR TAILERRAREN

### ERAKUSKETAREN INAUGURAZIOA

Kultur Etxean

## 12 ZAPATUA

### 10:30 TENIS JAIALDIA

Olaizaga kiroldegian

### 11:00 IKASTOLAREN EGUNA

Altxorraren bila, mahai jolasak, herri kirolak, buruhandiak, tailerrak eta haur jolasak.

Elgoibar Ikastolan

### 11:00 EKO ASTEA

Plaza Handian. Antolatzailea: Debegesa

### 15:30 TENIS JAIALDIA

Olaizaga kiroldegian

## JAIK

### SAN MIGELDARREN EGUNA

EKAINAK 13, DOMEKIA

### 11:00 Meza nagusia

Ondoren, salda eta txorizoa.

### 12:30 San Migeldarren arteko I. Lau eta erdiko pelota txapelketaren finala

### 14:30 Lagunarteko bazkaria.

Bazkalostean, Auzoko tabernari ohiei omenaldia: Floren Goikoetxea, Jose Salegi, Pedro Amutxastegi eta Maria Zelaia  
Ondoren, dantzaldia Gardokirekin



### I. URTEURRENA

2003ko ekainaren 10ean, 78 urte zituela hil zen

**MANUEL FREIRE MARTINEZ**en oroimenez

**URTEURRENEKO MEZA** izango da San Bartolome Parrokian

larunbatean, hilak 12, arratsaldeko 19:00etan.

Joango zaretanoi eskerrak alde zuretik.





## EUSKARA

### Udako Euskara Ikastaroak AEKn

Elgoibarko AEK euskaltegiak zabalik dauka uztaileko matrikulazioa. Euskalduntze, alfabetatze, EGA eta administrazioarako beharrezkoak diren hizkuntza eskakizunak irakatsiko dira. Guraso, langabetu eta ikasleek, matrikularen erdia ordainduko dute Udalaren laguntza izango dutelako. Matrikulazioaren epea, ekainaren 28an amaituko da. Argibide gehiago nahi izanez gero, joan Plaza Txikian dagoen AEK euskaltegira edo deitu 943 74 13 32 telefonora.

## TXANGOAK

### Leireko monasterioa eta Jabierreko basilika

Haizea Emakume taldeak Nafarroa aldera txangoa antolatu du ekainaren 20an, domekan. Bertan Leireko monasterioa eta Jabierreko basilikan bisita gidatuak egingo dituzte. Ondoren "Vinacua" jatetxean bazkaldu eta arratsaldean Erdi Aroko Sos del Rey Catolico herria ezagutuko dute. Autobusa goizeko 8:00etan irtengo da Plaza Handitik eta Elgoibarrera itzulera 21:00ak aldera izango da. Txangoaren prezioa 36 eurokoa da. Izen-ematea Pitxintxu dendan egin daiteke.

## KIROLA

### Tenis jaialdia

Udal Kirol Patronatuak 6 urtetik gorako haurrentzako Tennis Jaialdia antolatu du. Zapatu honetan, ekainaren 12an, izango da Olaizaga kiroldegian. Bertan, abiaturazko radarra, pilotak jaurtitzeko makina, Agassi puzgarria, jolasak eta sariak egongo dira. Goizeko saioa 10:30ean hasiko da eta 13:00ak arte iraungo du. Arratsaldeko saioa, berriz, 15:30etik 18:00etara izango da.

## ANTZERKIA

### "Hitzak patriketan" Mendaron

Mendaroko Udalak antolatuta "Hitzak patriketan" antzezlanaren taularatuko dute Iñaki Beraetxe eta Aitzpea Goenaga aktore ezagunek domeka honetan, ekainaren 13an, Goñati pilotalekuan. Haur txikiarentzako idatzitako antzerkilana da. Bertan, Barbara kakalarroak, Agustina oiloak eta Pepa txikiak bidaia bat proposatzen digute, zerbaiten eta koloreen magia aurkitzeko. Hiru kontakizun pedagogiko dira, irudimenez eta umorez beteak. Saioa arratsaldeko 17:00etan hasiko da.

## KONTZERTUAK

### Udal Musika Banda

Udal Musika Bandak domeka honetan, ekainaren 13an, eskainiko du kontzertua Herriko Antzokian. Jose Antonio Osororen zuzendaritzapean honako pieza hauek joko dituzte: "Kaiser Franz Joseph" (R. Allmend), "Carmen" (Bizet), "Samba Sensation" (Kees Vlak), "Chorale for Tronbon and Band" (T. Huggens), "Los Burladores" (P. Sorozabal) eta "Suite on Russian Dances" (T. Kenny). Kontzertua 12:30ean hasiko da.



zine

KARTELDEGIA

### ELGOIBAR, Herriko Antzokian

#### "La pasión de Cristo"

11, barixakua: 22:15  
12, zapatua: 19:30-22:15  
13, domekia: 19:30-22:15  
14, astelehena: 22:15  
"Van Helsing"  
18, barixakua: 22:15

### EIBAR, Unzaga

#### "El castigador"

11, barixakua: 19:30-22:15  
12, zapatua: 17:00-19:30-22:30  
13, domekia: 17:00-19:30-22:30  
14, astelehena: 19:30-22:15  
15, martitzena: 19:30-22:15  
16, eguaztena: 19:30-22:15

### EIBAR, Rialto

#### "Efecto mariposa"

11, barixakua: 19:30-22:15  
12, zapatua: 17:00-19:30-22:30  
13, domekia: 17:00-19:30-22:30  
14, astelehena: 19:30-22:15  
15, martitzena: 19:30-22:15  
16, eguaztena: 19:30-22:15

BARRENEK ez du gerta litezkeen emanaldien aldaketen erantzukizunik.



## "La Pasión de Cristo"

Zuzendaria: Mel Gibson.

Antzezleak: James Caviziel, Monica Bellucci, Mattia Sbragia.

Nazaretoko Jesusen bizitzako azken 12 orduak nolakoak izan ziren erakusten du filmak, hain zuzen ere azken afariaren ostean Oliben mendira (Getsemani) errezatzera joaten den unetik aurrera jaso zena. Satanasen tentazioei eta Judas Iscarioterren traizioari egin beharko die aurre. Atxilotu egingo dute eta Jerusalemenera eramango izan dadin. Bertan, Pilatosen aurrera eramango dute, Erromatarrek Palestinan duten gobernadorengana, alegia.

ZINEA



# A

ste honetako erretratu zaharra herritar batek laga digu. 1967. urte inguruan ateratako argazkia dugu hau. Argazkian ikusten dugun neska koadrila hau, sarritan joaten zen San Lorenzo, San Pedro edota San Roke aldera pasiaran, eta horietako irteera batean ateratako argazkia da. Kasu honetan, San Lorenzo ingurua dela esan digute. Bidean loreak bildu eta jolasean aritzen ziren. Gogora dezagun zeintzuk diren argazkian ageri diren neska dotore hauek:

Goiko ilaran, ezkerretik eskumara: **Maite Arrieta, Ana Aizpurua, Rosabel Iruretagoiena** eta **Marga Gallardo**.

Behean, ezkerretik eskumara: **Lorea Badiola, Trini Zabaleta, Bego Zabaleta** eta **Arantza Alonso**.



## ESKERTZA

*2004ko ekainaren 3an, 54 urte zituela hil zen,  
Mª TRINI REY TOBAJAS (Anjel Del Amoren alarguna).  
Sendiak, bihotzez **ESKERTZEN** ditu jasotako doluminak,  
hala nola hileta elizkizunetara agertu izana.*



Mª TRINI REY TOBAJAS

*Txori eijerra, hain alegera  
entzuten haidanian,  
ene bihotzeko tristurak  
laster dua aidian.*



# BASKO RENT

Tel.: 902 103 287

GARBIKETA  
MANTENIMENDUA  
AUTOEN ALOKAIKUA

Sigmako Industrialdea - 7 eta 8 pabillioiak

**MANTENDU EZAZU  
ZURE AUTOA  
GARBI ETA PREST!**

**KONPONKETA TAILERRA**



MANTENIMENDU OROKORRA  
OLIO, BALAZTA eta PNEUMATIKOEN ALDAKETA  
BARRUKO GARBIKETA INTEGRALA

**GARBIKETA AUTOMATIKO  
PUBUKOA**



**ESKAINZA BEREZIA:**  
PNEUMATIKOAK 4 X 3  
3 ORDAINDU ETA 4 JARRIKO DIZKIZUGU



**Firestone**

**GOODYEAR**



**Makina  
Erremintaren  
Institutua**

Azkue Auzoa, 1  
20870 Elgoibar  
Tel.: 943 74 41 32  
Faxa: 943 74 41 53  
ingenieria@imh.es  
www.imh.es




## TXANDAKAKO INGENIARITZA

**Ateak Zabalik:**

**ekainaren 30ean, 18:30etan**

Bere ezaugarriak eta instalazioak ezagutu itzazu

- Lana eta ikasketak tarteka itzatzu 3 urtez
- Lan kontratua formazioaren lehen egunetik
- Enpresarekin elkarlanean prestatutako ingeniaria



# MUEBLES EL ALMACEN



Kolore, neurri  
eta materialak  
zure beharretara  
egokitzen ditugu.



Urasandi, 21 · ELGOIBAR  
Tel.-Faxa: 943 74 29 41



Sukaldeak eta armairu landatuak

